

2021/2022ko ordutegiari buruzko oharra.

2021-2022 ikasturtean, osasun-egoeraren arabera eta agintariek hartzen dituzten erabakien arabera, gelaren edukiera murriztuta legoke. Gelaren **edukiera %50ekoa izatekotan** irakaskuntzarako **eredu konbinatua** erabiliko litzateke, hau da, presentzialtasun murriztua gelan eta ikaslearen lan autonomoa irakaslearen segimenduarekin. Horretarako azpitaldeak egingo genituzke: web orrialdeko 1. seihileko ordutegian A eta B azpitaldeetako ikasleek etorri behar duten egunak bereizten dira. **Egoera horretan izatekotan, A eta B azpitaldeen ikasle zerrendak irailean argitaratuko dira.**

Saioen antolaketa desberdina izango litzateke ikasgai motaren arabera:

Derrigorrezko ikasgaia, astero **2 saio**ko ikasgaia:

- 1. saioa: saio presentziala azpitalde bakoitzarekin (A edo B),
- 2. saioa: atazak prestatuko dira ikasgaia lan autonomo moduan jarraitzeko, irakaslearen segimenduarekin.

Aipameneko ikasgaia, astero **3 saio**ko ikasgaiak:

- 1. saioa: saio presentziala azpitalde bakoitzarekin (A edo B),
- 2. saioa: atazak prestatuko dira ikasgaia lan autonomo moduan jarraitzeko, irakaslearen segimenduarekin,
- 3. saioa: talde osoarekin (A+B) meet-en bidez (egunaren arabera, ikasleen konexioa etxetik edo Eskolatik izango da), baina ikasgai motaren arabera aldaketak egon daitezke.

Ikaskuntza-jarduera batzuk urrutitik egin daitezke, eta, horretarako, ikasleak ordenagailu bat eduki beharko du Internetarako konexioarekin, mikrofonoarekin, audioarekin eta web-kamerarekin.